

Espainiako federazioak soka eten du

Euskadiko Txapelketari debekua ezarri dio EAetik kanpoko lurraldeetan jokatzeko

Espainiako Pilota Federazioak debekatu egin dio Euskadiko Federazioari honek antolatutako txapelketetako partiduak EAetik kanpora jokatzea. Horrez gain, Espainiako Federazioak kide izaten jarraitu nahi duen edo ez «espreski» adierazteko eskatu dio Euskadiko Federazioari, eta Madrilgo erabakiak bete ezean zigor mehatxua egin dio. Jose Ramon Garaik «ahoa bete hortz» geratu dela adierazi du.

Xabin Makazaga / Donostia

EUSKADIKO FEDERAZIOARI atek zabaldu dizkio Espainiako Federazioak, baina kanporako bidea har dezan: Euskadiko Txapelketetako partiduak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora jokatzeko debekua ezarri dio; txapelketa horietan parte hartuko duten enpresetako pilotariei lizentzia Euskadiko Federazioarekin eginarazi izana gogor gaitzetsi du; Euskadiko Federazioari Espainiakoaren kide izaten jarraitu nahi duen edo ez «espreski» adierazteko eskatu dio; eta Espainiako Federazioak hitzartutako erabakiak «zurrun» bete ezean, Euskadiko Federazioaren aurka neurriak iragarri ditu.

Atzo bildu zen Espainiako Pilota Federazioak Zuzendaritza Batzardea, eta horko kideez gain Nafarroa, Errioxa, Madril, Gaztela-Leon eta Galiziako federazio buruak izan ziren bileran; Andaluzia, Asturias, Aragoi, Balearrak, Kanariak, Katalunia, Gaztela-Mantxa, Valentzia eta Murtziako federazioek ere babestu dute bilera horretan hartutako erabakia.

Lau puntu ditu Espainiako Fe-

derazioak hitzartu berri duen akordioak. Lehenengoan, Euskadiko Federazioari jakinarazten dio baimenik ez diola ematen Euskadiko Txapelketak EAetik kanpora jokatzeko. Arrazoiak, Euskadiko Txapelketak ez direla ageri Espainiako Federazioaren Batzarrak urtero onartu ohi duen egutegian. Euskadiko Federazioak antolatzen dituen txapelketa ofizialetan, «bere lurralde esparrua gainditzen denean» Espainiako Federazioaren instrukzioak bete behar dituela dio oharrak.


«Protestarik sendoena» ere egin du Espainiako Federazioak, Euskadiko Federazioak «inposatu» egin bide dielako pilota enpresei hark antolatutako txapelketetan parte hartzen duten pilotariei lizentzia halaberrez Euskadiko Federazioaren bidez kudeatzea. «Inposizio hori zuzendu dezan eskatzen diogu, enpresek lizentziak

egoki irizten dioten federazioan eskatzeko aukera izan dezaten».

Espainiako Federazioaren Zuzendaritza Batzardeak onartutako agiriaren hirugarren puntuan «espreski» adierazteko eskatzen diote Euskadiko Federazioari «Espainiako Federazioaren barruan egoteko —edo ez egoteko— borondatea». Erantzuna baiezkoa izatekotan, horrek dakarren guztia onartu beharko dutela ohartarazten dio Espainiako Federazioak Euskadikoari: «Horren barruan dago federazio organoen akordio eta erabakiak dilijentziaz onartu eta betetzea, azken boladan hartutako jarrera eta erabaki batzuk bazterrerara utzi». Horretarako, EAeko esparrua gainditzen duten erabakiak hartzerakoan Euskadiko Federazioak Espainiako eta eragindako beste federazioak kontuan hartu beharko dituela dio oharrak.

Azkenik, Espainiako Federazioak atzo hitzartutako akordioa Euskadikoak «zurrun» bete dezan exijitzen du. Hala egin ezean, indarrean dagoen legerian oinarrituta «beste erabaki batzuk» hartu beharra izango duela ohartarazi du Espainiako Federazioak. Mehatxu kutsu nabarmenarekin, horrelako ekinbiderik ez dutela abiatu nahi eranstean du Espainiako Federazioaren oharrak, «baina etengabeko urratze jarrera horrek jarraitzen badu, dudamudarik gabe hartuko ditugu neurri horiek».

Euskadiko Federazioak presidente Jose Ramon Garaik atzo esan zuen oharrak «ahoa bete hortz» utzi zuela: «Hau guzti hau Mexikon egin genuen eskaerari erantzuteko beste urrats bat da. Espainiako Federazioak eta guk modu desberdinean ulertzen dugu egitura federatiboa». X



Julian Garcia Angulo, Espainiako Pilota Federazioaren presidentea.

JOSEBA OLALDE

Asegarcek ez ditu aldatu Lodosako eta Najerako partiduak

Bihar Euskadiko bigarren mailako Txapelketako bi partidu dira jokatzekoak: Lodosan Koka eta Barriola, Tirapu eta Balerdiren kontra; eta Najeran Gorostiza eta Imaz, Minguez eta Rairen kontra. Espainiako Federazioak debekua ezarri du Euskadiko Txapelketetako partiduak EAetik kanpora jokatzeko, baina Asegarcek ez du aldatarik iragarri, eta, printzipioz, jaialdiak bere horretan utziko ditu.

Aritz Berraondok bihar egingo du profesionaletako debuta

Aspek fitxatu berria, Aritz Berraondok bihar egingo du debuta profesionaletan. Eibarko Astelena pilotalekuan jokatu du Berraondok, Galarza III.a lagun duela, Olaizola II.a eta Santiren aurka. Arratsaldeko 17:00etan hasiko den jaialdi handian Titin III.ak eta Bernak jokatu dute Capellan eta Elkoren kontra.

Ruben Belokik bat egin du Gurutze Gorriaren kanpainarekin

Gurutze Gorriak Ez ezazu jolastu gabe zigortu kanpaina jarri du abian Gabonetarako, bestela aukerarik ez duten haur guztiek Errege Egunean jostailu bat izan dezaten. Ruben Beloki pilotari burlatarrak bat egin du Gurutze Gorriaren kanpainarekin, eta atzo Hiper Eroskin izan zen, jostailu bat eman zuten guztiei autografoak sinatzen.

CLUB ATLETICO OSASUNA



Bazkide gainontzeko denboraldirako

Zatoz gure bulegoetara Gaztelu enparantzara, 9etatik 14etara eta 16etatik 20etara, abenduaren 22tik urtarrilaren 7ra arte

Eguberrietarako oparirik onena

I z a n z a i t e z O s a s u n a k o b a z k i d e